EXPOSICIÓN “LA DISCIPLINA DEL CAOS” DE ISABEL COIXET, EN MUSEO SAN TELMO

# Isabel Coixet explora la disciplina del collage

MARÍA ARANDA OLIVARES



Isabel Coixet durante la presentación de su exposición. GARI GARAIALDE


'La disciplica del caos' en el Museo San Telmo. GARI GARAIALDE

Desde el pasado 11 de septiembre hasta el 1 de noviembre puede verse en el Museo San Telmo la exposición ‘La disciplina del caos’ de Isabel Coixet. La muestra recoge una selección de más de 60 collages creados por la cineasta en tres lugares en los que vivió: Nueva York, Roma y Montolieu. Cada uno de ellos le aportó algo diferente: Roma le dio “luz y ruinas”; en Nueva York, “recorté como quien come de pie: con urgencia, sin demasiada elegancia, con hambre”; y, por último, en el pueblo francés sus collages se volvieron “más silenciosos. Más extraños”.

Coixet recorta, pinta, colorea, reúne y refleja los temas que acompañan a su filmografía: el género, la identidad, la memoria individual y la colectiva o el paso del tiempo. En resumidas cuentas, representan la vida misma que, para la artista, es “el más interesante desafío”, tal y como recoge el texto de Laura Ferrero, quién coescribió junto a la directora su film *Un amor*, basado en la novela de Sara Mesa, y que sirve como introducción a la exposición.

La muestra, que se presentó en 2025 en el Museo Thyssen-Bornemisza, dentro de la programación de PhotoEspaña, llega a San Telmo con varias obras nuevas. Los collages están realizados tanto a mano como mediante técnicas digitales. En ellos crea, a partir de recortes, fotografías y objetos, composiciones que combinan recuerdos y referencias personales con fragmentos de otras vidas: “Esos rostros detenidos nos miran como si dijeran ‘nosotros, nosotras también estuvimos ahí’”, apunta Laura Ferrero.

En la publicación con textos que el museo ha editado junto con la exposición, Coixet confiesa que empezó a hacer collages porque no sabía dibujar de la manera que quería. Durante la presentación de la exposición, explicó que “hay momentos en los que la cámara pesa demasiado, el guion es una trampa, las palabras se ponen difíciles”, y el collage se convierte en una vía de expresión. Además, disfruta estando rodeada de “cantidades ingentes de papeles en mi cuartito. Recortar es un acto de violencia muy controlada. Muy civilizada. Recortas lo que te sobra del mundo y lo vuelves a pegar en un orden que no existía antes. El collage proporciona un lenguaje con el que navegar en el caos de la existencia y encontrar estructura, belleza y paz”.

> **"Tengo mis dudas sobre casi todo lo que hago, y en eso, al menos, soy consciente"**

Coixet, Presidenta del jurado de Culinary Zinema en esta 74 edición, confiesa no saber “qué son estas piezas. Tengo mis dudas sobre casi todo lo que hago, y en eso, al menos, soy consistente”. Desde aquí les invitamos a descubrir esta faceta artística de la cineasta; a disfrutar con la inocencia de un niño o una niña y con la madurez de un adulto de unas obras llenas de vidas pasadas y presentes.

“ENTRE LO REAL Y LO VIVIDO” ERAKUSKETA GIPUZKOAKO ARGAZKIGINTZA ELKARTEAN

# Concha de la Rosa, lapurtutako erretratuen argazkilaria

SERGIO BASURKO

Donostilandia aldizkariak eta Gipuzkoako Argazkilari Elkarteak Concha de la Rosaren argazkien hautaketa bat paratu dute SFGren egoitzan. ‘Entre lo invisible y lo vivido’ izenburuko erakusketa honetan, alde batetik, Espainiako zinemako film eta sailetan argazki finkoko argazkilari gisa egindako ibilbidean zehar ateratako hainbat argazki daude; eta horiekin batera, artistaren kale-argazkigintzako lan pertsonalaren erakusketa dago, estetika zinematografiko nabarmenekoa; hortik abiatu zen gerora zinemako argazkilari gisa egingo zuen lana.

Kaleko argazkilaritzak eta zinemarako argazki finkoak bi lanbide ezberdin dirudite, baina Concha de la Rosarengan lotura aparta aurkitzen dute. Artista, bere kameraren aurrean gertatzen denera egokitzen da besterik gabe; aurkitu eta harrapatu egiten ditu uneak. Emaitza pertsonaia magnetikoen eszenak eta erretratuak dira, nor diren, zer egiteko dauden, nora doazen edo noren zain dauden sumatzera gonbidatzen dutenak.

Inauguraziora bertaratutakoen galderei erantzunez, Conchak “zailena unea unean harrapatzea” dela esan zuen. Ekitaldiaren aurkezleak, bere kidearen hitzak berretsiz, hautatutako argazkiei erreferentzia eginez zera adierazi zuen: “ezin diozu klik egiteari utzi, gelditzen bazara edo despistatzen bazara ‘argazkia’ gal dezakezulako”.

Kaleko argazkilaritzan, Conchak oso gertutik ateratzen ditu argazkiak, ia pertsonaien gainean; hartualdi bakarra dago bere argazkietan. Giza begiaren antzeko lente finkoak erabiltzen ditu, 40 eta 50 mm artekoak, hain zuzen ere. “Argazkia atera aurretik ez dut inoiz baimenik eskatzen. Gero, argazki bat atera diedala esan, eta konforme ote dauden galdetzen diet”, aitortu zuen argazkilari sevillarrak: “lehenbizi tiro egin eta gero galdetzen duten horietakoa naiz”. Hori dela-eta, ‘lapurtutako erretratuen argazkilaria’ esaten diote.

Erakusketa honetan azken hamarkadan Donostia Zinemaldian aurkeztutako film eta sailetako filmaketetan ateratako zenbait argazki aukeratu ditu (*Arde Madrid, La vírgen roja, Viaje al cuarto de mi madre* edo *Flores para Antonio* lanetakoak, besteak beste), eta Madril, Marseilla edo Sevillako kaleetan harrapatutako argazkiekin elkarrizketan jartzen ditu.

Argazki finkoak tradizioz zuzendariari balio izan dio hartualdien arteko jarraitutasun-erreferentzia gisa, elementu bakoitzak aurreko planoetako leku berean jarraitzen duela ziurtatzeko. Alabaina, Rosak ez ditu fotogramak kopiatzen, bere argazki ia guztiak filmatzen ez den bitartean ateratakoak dira: entseatzen ari direnean, antzezleak eszenan prestatzen dituzten bitartean. Hala eta guztiz ere, filmak beren nortasun osoarekin azaltzen dira bere argazkietan.

Erakusketak Zinemaldiko zuzendari Jose Luis Rebordinosen bisita izan du ostegun honetan, hilak 17, eta datorren urriaren 15era arte egongo da zabalik, 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 21:00etara astelehenetik ostiralera, eta 17:00etatik 20:00etara larunbatetan; esan bezala Gipuzkoako Argazkilari Elkartearen egoitzan (Donostiako San Juan kaleko 27. zenbakian).

